



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 21a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Ez-materialaren Lehen Plan Zuzendaria presta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da interneteko iragazkiak bana ditzan nafarren artean, web orri arriskutsuetako sarbidea eragozteko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzeta hitzarmen bat sina dezan Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako herritarrek ETBko kanalak sintonizatu ahal izateko. Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordean izapidetzea (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Ablitasko lurzati berrantolamenduari buruzkoa, M^a Gracia Iribarren Ribas andreak egina (11. or.).

—Galdera, zahar-etxeetako toki itunduei, itxaron zerrendei eta eskari handieneko eremuei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (11. or.).

- Galdera, Torrespapel taldearen egoerari eta horrek Leitzako fabrikan etorkizunean izan dezakeen eraginari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (12. or.).
- Galdera, Endarlatsa inguruan gertatzen ari diren harri-erorketei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (13. or.).
- Galdera, zaharrentzako egoitza pribatuetako langile kopuruari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Nafarroa 2012 Plana betetzen dela kontrolatzeko izendatutako 26 agenteen izen-abizenei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (14. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Nafarroako Gobernuaren turismo-marka Labrit frontoian, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (15. or.).
- Galdera, familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea kontusailari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa.

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak, 2008ko azaroaren 18an eta 19an eginiko bileretan onetsia.

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako Kontratu Publikoei
buruzko 6/2006 Foru Legeko
51. artikulua aldatzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Gizarteratze-tresna nagusietako bat bihurtu da enplegua. Soldatapeko jarduera ekonomikoa da gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren osagai eraginkorrenetako bat.

Gaur egun, ordea, langabezia-tasa txikia den arren, badira enplegarritasun txiki edo oso txiki-ko eta batere enplegarritasunik ez duten pertsonak, badira beste batzuk enplegu-prekariatatean daudenak, lan merkatuan etengabe sartu eta irte-ten, eta badira orobat, lana izanagatik, soldata oso txikiak jasotzen dituztenak, arauz kanpo edo ezkutu ekonomian lan egiten dutenak; horiek denak gizarte bazterkerian edo gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan daude.

Enplegu-tresnak, oro har, gaitasun gehien dituzten pertsonen eta enplegua lortzeko aukera gehien dituztenei zuzentzen zaizkie, eta gizarte zerbitzuak, berriz, talderik ahulenez arduratzen dira. Baliabide gutxi dituzte lanean hasi ahal izateko, baina ekintza-multzo bat hedatzen dute horretarako: informazio eta orientazio zerbitzuak, lane-ko eta lan-aurreko prestakuntza, auto-enplegurako aholkularitza, gizarte-enplegu babestuko programak eta abar. Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua osatzeko neurriak behar dituzte ekintza horiek.

Izan ere, ekintza horietako gehienek “abiapuntuan” esku hartuta lortzen dute enplegua, hau da, oztupoak kenduz, trebetasunak eta gaitasunak hobetuz eta abar. Hori dena garrantzitsua da, baina oinarritzko alderdi bat falta da oraindik ere: “helmuga” edo enplegu zehatz bat lortzea.

Honela definitzen dira “gizarte-klausulak”: kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-politikaren elementuak txertatzea, eta zehazki enplegua sustatzea gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzat, pertsona horiei lan munduan sartzen laguntzearen. Logikoa denez, klausula horiek ezin dira tresna isolatu bat izan, beste jarduketa batzuen osagarri izan behar baitute. Horien balioa datza, hain zuzen ere, laneratzeko ibilbidea osatzeko izan ohi den zailtasuna enplegua lortzearen bidez gainditzeko beharrea. Halatan, “gizarte-klausulen” bitartez, lanpostu kopuru jakin bat erreserbatuko zaie gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonen, lan munduan sartzeko eta enplegua lortzeko sinergiak baliatuta.

Foru lege honi esker, gizarte-ezaugarriak gehitu ahalgo zaizkie kontratuak esleitzeko irizpideei, 51. artikuluko 1. idatz-zatian eta 2. idatz-zatiko c) letran zehazten den moduan.

Artikulu bakarra.-

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua honela geldituko da idatzirik:

51. artikulua. Kontratua esleitzeko irizpideak.

1. Kontratuak esleitzeko oinarrizko irizpideak honako hauek izanen dira:

a) eskainitako prezioa soilik.

b) gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari lotutako irizpideak erabiliko dira, hala nola kalitatea edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio teknikoa, ordezkotuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumenari dagozkion ezaugarriak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, eta antzeko beste batzuk.

2. Kontratua eragin duen interes publikoa zein den, kontratazio organoek hartarako irizpide egokienak erabiliko dituzte. Honela:

a) Eskainitako prezioa elementu erabakigarri bakarra bada, hura soilik erabiliko da esleipenerako irizpide gisa. Betiere emakida kontratuak eskaintza onuragarrienari esleituko zaizkio.

b) 49. artikuluan jasotzen diren betekizunekin bat, eta administrazio klausula partikularren orrietan aldeztuak definituta, aurkeztu den eskaintzaren gizarte-ezaugarriari buruzko irizpideak jaso ahalko dira.

c) Administrazio klausulen orrietan aldeztuak definituta, eta kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradun gisa azaltzen diren populazio-maila bereziki kaltetuen beharrezan

asetzea helburu, beharrezan horiei erantzuten diren irizpideak jasoko dira, hala nola zuzentzen zaizkien ezgaitasuna duten pertsonen, lan merkatuan kaltetutakoien eta enplegu-kolokatasunean daudenei edota zuzenduta daudenak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzera, Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak betearaztera edo pertsona ororentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideak ziurtatzera.

3. Administrazio klausula partikularren orrietan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta bi lizitazioak edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: langile ezinduen ehunetik handiena duen enpresa, enpresako langileen 100eko 3k, gutxienez, ezgaitasunen bat baldin badu; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunetik txikiena duen enpresa, enpresaren plantillan behin-behineko langileak 100eko 10 baino gehiago ez badira; eta halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, genero arloko praktika onak egiten dituela frogatzen duen enpresa.

Horretarako, kontratazio mahaiak edo kontratua kudeatzen duen unitateak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost eguneko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Aurreko irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketak irauten badu, zozketaren bidez hautsiko da.

Xedapen gehigarri bakarra.

Foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabete epean garatuko da erregelamendu bidez, zeinak zehaztuko baitu foru lege honetan zerrendatzen diren gizarte-klausulak baloratzeko modurik objektiboena eta hobena.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Ondare Ez-materialaren Lehen Plan Zuzendaria presta dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Ondare Ez-materialaren Lehen Plan Zuzendaria presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Nafarroako kultur ondare ez-materialari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Kultur ondare ez-materiala osatzen dute komunitateek, taldeek eta, kasu batzuetan, gizabanakoei beren kultura ondarearen osagai gisa onartzen dituzten erabilera, adierazpideak, irudikapenak, ezagupenak eta teknikak –eta horrekin batera horri datzekion tresnak, objektuak eta kultur guneak–.

Kultur ondare ez-material hau belaunaldi-belaunaldi transmititzen da eta etengabe birsortzen dituzte komunitateek eta taldeek, inguruaren

eta naturarekiko eta beren historiarekiko elkarrekinzaren arabera, eta horrek nortasun- eta jarraitasun-sentimentu bat sorrarazten die, eta kultur aniztasunarekiko eta gizakiaren sormenarekiko errespetua sustatzen laguntzen du.

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 2. artikulua dienez, Nafarroako kultur ondarearen osagai dira, besteak beste, Nafarroako kulturari buruzko ondasun ez-materialak. Lege honetan xedatzen denez, Nafarroako herri kultura eta usadiozkoa osatzen duten ondasunak eta haien hizkuntza berezitasunak ere ondare ez-materialaren parte dira.

Lege horren hirugarren kapituluaren garatzen da interes kulturalen ondasun ez-materialen edo 53. eta 54. artikuluetan inbentariatuak babes araubidea. Ondasunen babesa deklarazio baten bidez finkatuko da eta bertan espresuki ezarriko dira kontserbaziorako eta zabalkunderako neurriak egokienak. Halaber, Foru Komunitateko administrazioak ondasun horien ezagupena osatu edo hobetzeko behar diren ikerketak sustatzeko neurriak hartuko ditu.

54. artikuluan xedatzen denez, Nafarroarako garrantzi kultural berezia duten ondasun ez-materialen inbentario bat eginen da, zeinean ondasun horien berri emanen baita, haien identifikazio eta babeserako.

Komenigarria da gaur egun dugun araudia garatzen hastea eta gero eta helburu zorrotzagoak ezartzeko joera duen bideari ekitea, Nafarroako herrietatik azkar desagertzen ari den ondare hori babeste aldera.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek errazten dute jaso, aztertu, artxibatu eta planetako herritar guztien esku jar daitezkeen era guztietako materialak grabatzea, artxibatzea eta balioa ematea, Internet amaraunaren bidez.

Hori guztia horrela, eta azken urteotan modu isolatuan eginiko ekintzen aitorpena abiapuntu, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa proposatu du, Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako ondare ez-materialari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan, Foru Komunitateak arlo horretan dituen ahalmenei balioa eman ahal izateko eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 53. eta 54. artikululak garatzeko. Plan horrek gutxienez ere honakoak jaso beharko ditu:

– Nafarroako ondare ez-materialaren azterketa eta diagnostia.

– Gure inguruarekiko azterketa konparatua.

– Plan zuzendaria:

- Helburuak

- Denbora helburua

- Abian jarri beharreko ekintzak: inbentarioa, babes eta sustapen ekintzak eta abar.

- Aurreikusitako zenbateko ekonomiko orokorra.

- Plana abian jartzeko behar diren langile- eta aurrekontu-baliabideak.

- Hitzarmenak beste erakunde batzuekin: NUP, arlo horretan jada lanean ari diren kultur elkarteak eta abar.

2. Nafarroako Parlamentuak urtebeteko epea emanen dio Nafarroako Gobernuari plan hori presta dezan; plana Legebiltzarrean aurkeztu beharko da ezagutu eta onesteko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da interneteko iragazkiak bana ditzan nafarren artean, web orri arriskutsuetako sarbidea eragozteko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita interneteko iragazkiak bana ditzan nafarren artean, web orri arriskutsuetako sarbidea eragozteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, dagokion Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Internetek aurrekaririk gabeko iraultza ekarri du informatikaren eta komunikazioen mundura. Telegrafoak, telefonoak, irratiak eta ordenagailuak oinarriak ezarri zituzten inoiz ikusi gabeko gaitasunen integrazio hau sor zedin. Internet da, aldi berean, mundu osora zabaltzeko aukera, informazioa zabaltzeko mekanismoa eta gizabanakoen eta beren ordenagailuen arteko lankidetzarako eta elkarreraginerako baliabide bat, edozein dela ere haien kokagunea.

Internet amaraunaren etorkizuna da. Gaur egun, partzuergo batek osatzen du, zenbait unibertsitatek zuzentzen duena. Partzuergo horrek, komunikazioen industriarekin eta Gobernuarekin batera, konexio teknika berriak garatzen ari da, zerbitzarien arteko transferentzia-ahalmena azkartzeko. Horren helburuak hezkuntzaren eta ikerketa akademikoaren arlora bideratuta daude. Gainera, banda zabaleko transferentzia-ahalmenak eskatzen duten audio eta bideo aplikazioak baliatzeko bideak aprobetxatu nahi dituzte.

Internetek aukera zenbatezinak aurkezten baditu ere azpiegitura ekonomiko eta kultural gisa, giza-jarduera asko errazteko eta gure beharriak eta garapen pertsonala hobetzeko, Interneten erabilerak baditu arriskuak ere, bereziki haurrentzat, nerabeentzat eta arazo jakin batzuk dituzten pertsonentzat: isolamendu sozialerako joera, iraupen luzeko langabeak...

Haurren kasuan, gurasoek arreta egokia ez badute jartzen –askotan etxetik kanpo lanean ematen dute egun osoa–, bidea libre izaten dute eskolatik itzultitakoan kontrolrik gabe telebista ikusteko eta Interneten sartzeko, etxean halakorik badago. Etxeko ordenagailuak ez badu orri desegokietan sartzeari mugatzen duen iragazkirik, haurrak, halaber, edota lagun eta pizgarri berriak aurkitu nahian, era guztietako eduki, zerbitzu eta pertsonak aurki ditzakete, eta horiek ez dira beti fidagarriak edota adin guztietarako egokiak izaten. Eta kuriositateak bultzatuta hasten dena mendekotasun bilaka daiteke, adin horietan haurrak erraz erakar baititezke. Arrisku horiek lehen ere baziren, telebistarekin eta bideojokoekin, baina orain asko ugartu dira Interneten eraginez, toki guztietan baitago eta etxeetatik, eskoletatik eta ziberguneetatik sar baititeke; hala ere, tamalez, guraso asko ez dira horretaz jabetu.

Internetek ematen dituen aukera guztiak (web orriak ikusten, weblogak eta webak argitaratzea, posta elektronikoa, bat-bateko mezularitza, foroak, txatak, zuzemen eta merkataritza elektronikoa, asialdirako guneak), izan dezakete arriskuren bat, “mundu fisikoan” egiten ditugun jarduerekin gertatzen den moduan. Interneten kasuan arrisku hauek nabarmen ditzakegu, besteak beste:

Informazioarekin loturiko arriskuak

- Informazio ez-fidagarria edo faltsua eskuratzea
- Sakabanatzea, denbora galtzea

- Informazio arriskutsua, ezmorala edo zilegi ez dena eskuratzea

Badira web orriak informazio zientifikoa duten arren desegokiak eta, are gehiago, kaltegarriak izan daitezkeenak haur eta adingabeentzat, gaiak jorrazteko moduagatik edo irudien gordintasunagatik (sexua, indarkeria, drogak, zenbait kontaktuzun historiko eta literatur lan). Bada gomendagarria ez den informazioa ere (haur pornografia, indarkeria, era guztietako sektak), baita delituztat hartzen diren edukiak, indarkeria, arrazakeria, xenofobia, pedofilia, drogen kontsumoa, erritu satanikoetan eta legezkoak ez diren sektetan parte hartzea, delituak egitea eta abar bultzatzen dutenak. Interneten globaltasunak eta herrialdeetako kultura eta legeria desberdinek ahalbidetzen dute halako web orriak ziberespazioan egotea (aldi baterako bederen; izan ere, delitu informatikoen arloan lan egiten duten poliziaren talde bereziki nazioartean jarduten dute).

Profesionalen arteko komunikazioarekin loturiko arriskuak

- Postontzi elektronikoa blokeatzea
- “Zabor mezuak” jasotzea
- Iraingarriak diren mezu pertsonalak jasotzea
- Intimitatearen galera
- Legezkoak ez diren ekintzak

Eragin ekonomikoa duten jarduerekin loturiko arriskuak

Erosketak eta zuzemenak, artxiboak bidaltzea eta jasotzea. Internet oinarri duen ziberespazioa mundu paralelo bat da, non “mundu fisikoan” egiten ditugun jarduera ia guztiak egin ditzakegun. Eta eragin ekonomikoa duten jarduerak beti dakar te arriskua berekin.

Interneten funtzionamenduarekin loturiko arriskuak, mendekotasunekin zerikusia dutenak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek honako erabaki proposamena aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Interneteko iragazkiak (softwarea) bana ditzan nafarren artean, haurrak eta adingabeak web orri arriskutsuetan sartzeari eragozteko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu, Legebiltzarren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

2007ko urriaren 22an, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin zion Nafarroako Gobernuari azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jardueraproiektuei buruz. Horretaz gain, informazioa eskatu zen onartutako proiektuei eta emandako laguntzaren hasierako zenbatekoari buruz, baita baztertutako proiektuei eta emandako arrazoiei ere.

Gobernuaren erantzunak onartu zuen –eta Estatuko administrazioak emandako informazioak

horrekin bat datoz– aurkeztutako ekimenak urriak eta irregularrak direla, eta haien administrazioko izapidetze-prozesua konplexua dela.

Ikusirik egoera zailean gaudela, ekonomiari eta aurrekontuei begira, eta Espainiako eta Nafarroako gobernuen arteko harremanak dezente hobetu direla, eta beharrezkoa dela horretaz baliatzea eskualde-mailatik haratago nazio-mailan proiektatuko diren kultur-proiektuen onurarako, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen ustez komenigarria da administrazioen arteko kooperazio-politikak indartzea, herritar guztientzat onuragarriak izanen diren sinergia positiboak sortze aldera.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du balia ditzan Espainiako Gobernuak autonomia erkidegoetako gobernuarekin kulturaren arloan kooperatzeko aurreikusita eta irekita dituen bideak, horretara bideratutako baliabideak optimizatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere presentzia kualitatiboa nahiz kuantitatiboa areagotu dezan indarrean dagoen % 1 kulturala programa berariazkoaren hurrengo deialdietan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du programa horri dagokionez ahaleginak batera ditzan eta Espainiako Gobernuari proiektu garrantzitsuak eskaini dakizkion Espainiako Gobernuari, eskualde-maila gainditzen dutenak eta ikuspuntu artistiko batetik eztabaidaezinak diren parametroetan kokatzen direnak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du kulturaren arloan eragina izanen duten proiektuak aurkez ditzan; hain zuzen, garatzen diren eskualdeetarako garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuko dutenak.

Iruñean, 2008ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

Azken urteotan ikusi da beharrezkoa dela neurriak hartzea aldaketa klimatikoaren aurka, baita neurriak ezartzea ere, gizarteak jokamolde iraunkorra izan dezan, ingurumenari dagokionez.

Argi dago bizi garen gizarte modernoak zenbait jokaera ezarri dituela, zeinak eredu iraunkor

baterantz eraman beharrean, "iraunkortasunetik" gero eta urrunago dagoen jokamolde baterantz garamatzaten.

Iraunkortasunetik urrun dagoen jokaera honen eredu garbia dugu plastikozko azal eta ontziak gero eta gehiago erabiltzea, oso zaila baita horiek xurgatu eta degradatzea.

Egoera horrek ekarri du planetaren zenbait tokitan neurriak hartu izana, plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera mugatze aldera. Horretarako, araudi mota desberdinak baliatu dituzte; kasu batzuetan, horien erabilera debekatzeko neurrien bidez; beste batzuetan, poltsen erabilerari zergak ezartzearen bidez, disuasio-neurri gisa, birzikla daitezkeen poltsen erabilera sustatzeko kanpainen bidez, edota plastikozko poltsen merkaturatzea debekatzeko bidez, Frantzia egin duten moduan.

Edonola ere, jarduera horien azken helburua da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera nabarmen murriztea. Gaur egun, Nafarroan ez dago inolako planik ez araudirik plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera modu eraginkorrean arautzen duenik; hori dela eta, Sozialista del Parlamento de Navarra parlamentu-talderen iritzian, garrantzitsua da gai hori arautzea eta honako mozio hau aurkeztu du, eztabaida eta onets dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen foru lege proiektu bat aurkez dezan, Legebiltzarrean izapidetzeko, baita 2010etik aurrera horien merkaturatzea debekatzeko prozedura ere.

Iruñean, 2008ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako herritarrek ETBko kanalak sintonizatu ahal izateko.

ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA GOBERNUKO ELEDUNAREN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako herritarrek ETBko kanalak sintonizatu ahal izateko, Era-

kundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordean izapidetu dadin xedatzea. Mozio hori 2008ko urriaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ablitasko lurzatie berrantolamenduari buruzkoa.

M^a GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M^a Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Ablitasko lurzatie berrantolamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zuk zuzentzen duzun departamentuak ba al du asmorik eskatzeko, Ablitasko udal dermioan lurzatie berrantolamenduaren lanekin jarraitu aurretik, berrantolamendu horri buruzko ingurumen eraginare azterlana egokitu dadin Peñadil, Montecillo eta Monterreyko kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketa planera, 891/2006 Foru Aginduaren azken xedapenetan bigarrean ezarritakoaren arabera?

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, zahar-etxeetako toki itunduei, itxaron zerrendei eta eskari handieneko eremuei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, zahar-etxeetako toki itunduei, itxaron zerrendei eta eskari handieneko eremuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zahar-etxeetako toki itunduei buruzko galdera

- Zer egoitzatan daude toki itunduak?
- Zein da gaur egungo itxaron zerrenda eta zein eskualdetan dago eskaera hori?

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Torrespapel taldearen egoerari eta horrek Leitzako fabrikan etorkizunean izan dezakeen eraginari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Torrespapel taldearen egoerari eta horrek Leitzako fabrikan etorkizunean izan dezakeen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008ko azaroaren 5ean, asteartea, paperaren ekoizpenean eta banaketan espezializatuta dago-

en Torraspapel taldeak iragarri zuen Zornotzan (Bizkaia) eta Algecirasen (Cádiz) dituen ekoizpen zentroak itxi egin behar dituela, baita Sarriá de Ter-en (Girona) duen lantegia berregituratzeko asmoa duela ere. Neurri horiek 400 langilerengan izanen dute eragina. Konpainiak argudiatu duenez, neurri horiek hartzeko arrazoiak dira bere egitura berrantolatze beharra eta gaur egungo egoera ekonomikoa. Paper-enpresaren arabera, erabaki horrek ez du eraginik izanen, oraingoz, Leitzako (Nafarroa) lantegian.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1- Nafarroako Gobernuak galdetu al du Torraspapel taldearen egoerari buruz, zeinak etorkizunean eragina izan baitezake Leitzako (Nafarroa) lantegian?

2- Nafarroako Gobernuak egin al du bilerarik Torraspapel taldeko zuzendaritzarekin?

3- Zer berme eman ditu Torraspapel taldeak Leitzako lantegiari buruz?

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Endarlatsa inguruan gertatzen ari diren harri-erorketei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Endarlatsa inguruan gertatzen ari diren harri-erorketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

N-121-A errepidearen Nafarroako zatiko lanak ez dira izaten ari, aldizka toki horretatik igarotzen den edozeinen ikuspuntutik, garaiotan izan behar-ko lituzkeen kalitate- eta seriotasun-parametroekin eraikitako eta kudeaturiko azpiegitura bati dagokion garapena.

Hala, lur-jausiak, errai-mozketaren ondoriozko txandakako zirkulazioa, proiektuaren aldaketak, denboran luzatzen diren ezta eta abarrak eguneroko kontu bihurtu dira.

Oraindik ez ditugu ahaztu Igantziko Bentan izandako trafiko-eragozpenak –errai bat moztuta egon zen hilabeteetan–, areagotu egin zirenak ibaia oso hazita etortzearen ondorioz, bideratu zen artean ura errepidearen gainetik igarotzen baitzen, eta orain lur-jausi bat izan da Endarlatsa inguruan. Ezin da esan lur-jausi hori euriteen ondorioz gertatu denik. Bistan zen lur-jausi hori gertatuko zela; izan ere, harriak erortzea kontu arrunta eta ia egunerokoa zen, hondeatzeko maki-

nen lanak erorketak eragiten zituen eta inork ez zuen arriskua gutxitzeko neurririk hartzen, eta egoera horretan bistan da eguraldi txarrak, ondo kudeatutako obra batean eraginik izanen ez lukeen arren, ondorio larriak dituela N-121-A errepidean.

Hori dela eta, foru parlamentari honek ondoko galderak egin ditu:

1.- Endarlatsa inguruan harri ugari erori dira N-121-A errepidera, azaroaren 3tik aurrera errai bat moztu zuten arte. Hori ikusirik, Nafarroako Gobernuak ezarri al zuen istripuen prebentziorako neurririk, obra-zuendaritzaren bitartez? Hala bada, ekintza horiek jasotzen dituzten akta ikusi nahi ditut.

2.- Azaroaren 3az geroztik txandakako zirkulazioa dago 69. eta 70. km puntuetan. Noiz ezarriko da berriro bi erraitako zirkulazioa?

3.- Azal al lezake kontseilariak zeintzuk izan diren obra egin bitartean egin diren eta proiektuan aurreikusten ez ziren aldaketak (lotuneen aldaketak eta abar)? Jaso nahi ditut aldaketa bakoitzaren datuok:

- Kostu gehigarria
- Epe gehigarria
- Eraikuntza-proiektuan jaso ez izanaren arrazoiak

4.- Halaber, hiru zatien eraikuntza-proiektuak egiteko eta obra-zuendaritzaren laguntza teknikorako aurkeztu ziren eskaintzen balorazioa ikusi nahi dut. Horretaz gain, eskaintza esleipen-hartzaileen eta horiei dagozkien eraikuntza-proiektuen kopia nahi dut.

5.- Urriaren 30ean, esanen al liguke kontseilari andreak zein den jatorrizko proiektuekiko aurrekontu desbideraketa, obraren amaierarako aurreikusten den desbideraketa, obrak bukatzeko aurreikusitako epea eta, atzerapenik balego, zein den horren arrazoiak?

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, zaharrentzako egoitza pribatuetako langile kopuruari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, zaharrentzako egoitza pribatuetako langile kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zahar-etxeetako langileei buruzko galdera

Zenbat langile daude kudeaketa pribatuko zaharren egoitzetan?

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroa 2012 Plana betetzen dela kontrolatzeko izendatutako 26 agenteen izen-abizenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa 2012 Plana betetzen dela kontrolatzeko izendatutako 26 agenteen izen-abizenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezai-on:

Duela gutxi, Ekonomia kontseilari Miranda jaunak ondokoa iragarri zuen: "Nafarroa 2012 Planaren betetzea kontrolatzeko, sistema berria diseinatu da; horren arabera, 26 proiektu-agente izendatuko dira, hiru hilabetetik behin jarduera bakoitzaren bilakaeraren berri emanen dutenak.

Hori dela eta, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Hogeita sei agente horien izen-abizenak, ordezkatzeko duten antolamendua edo enpresa zehaztuta.

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Nafarroako Gobernuaren turismo-marka Labrit frontoian.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Nafarroako Gobernuaren turismo-marka Labrit frontoian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak prestaturiko Marketing Planean ezarritako estrategiaren barruan, Nafarroako Gobernuak marka turistiko berri bat sortu zuen, ondoko mezu iraunkorra zuena: "Reyno de Navarra. Tierra de diversidad". "Nafarroako Erresuma Nafarroa Lur Anitza".

Kontuan hartu behar da mezu iraunkorra dela "Reyno de Navarra. Tierra de diversidad". "Nafarroako Erresuma Nafarroa Lur Anitza".

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zergatik Iruñeko Labrit frontoian "Reyno de Navarra. Tierra de diversidad" marka turistikoa agertzen da eta ez "Reyno de Navarra. Tierra de diversidad". "Nafarroako Erresuma Nafarroa Lur Anitza"?

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea kontusailari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, "Familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea" kontusailari buruzkoa.

• Zeintzuk dira 2008an kontusail honen bidez finantzatu eta sutatu ziren neurri zehatzak?

• Zeintzuk dira 2009an "Familiak sustatzeko ekintzak eta programak garatzea" kontusailarekin finantzatu nahi diren ekintzak, programak eta ekimenak?

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urtebete 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	---